

**J.M. SATRUSTEGI**  
**II. *Manuel Irujo Saria***

*Lizarra / Estella, 2002-VI-08*

*Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua*

Jaun-andereak eguerdi on!

Ene lehenbiziko hitzak esker onezko hitzak izanen dira gomitatu nauzuelakotz Jose Mari Satrustegi euskaltzainkideari egiten zaion omenaldira. Ohore handi bat da enetatzat, hemen naizela euskaltzainburu gisa nafar euskaltzain bati «laudatio» delakoaren eskaintzeko.

Euskaldun eta nafar, apaizgoa ahantzi gabe, hona zer den enetatzat J.M. Satrustegi.

Apaiz lehen, egun batez entzun baitu Jainkoaren deia eta dei horri erantzun baitio. Iruñeko seminarioan ikasketak eginik, izendatua izan zen Luzaiden bikario. Han ezagutu zuen beste euskalki bat eta harremanetan sartu Garaiziko eta Iparraldeko apaizkideekin. Gero, luzaz egona da Urdiainen erretore, artzain onaren eguneroko lanaz arduratuz, arimen artzaina, anai-arrebak biltzen dituela anaitasun handienean.

Nafarra, nola ez, Arruazun sortuz gero. Nafar ingurumenean bizi izan da beti eta, estudioak bururaturik, nola ez ohar lur berezi batean jaio zela eta lur horrek gordetzen zituela altxor ohargariak, bai historiaren aldetik, bai etnografiaren aldetik.

Iker lanetan ari izan da apaizgoak uzten zion denbora guzian. Luzaide izan da J.M. Satrustegirentzat inkesta toki aberatsa. Oroit naiz oraindik Luzaiden egin zuela Euskaltzaindiko sarrera-mintzaldia Orixé-ren segida hartuz «*Luzaideko otoitz ttipiak*» gaia aztertuz. Luzaide herriari berea eman dio argitaratu dituelarik *Bordel bertsularia* (1965) eta *Luzaideko kantiak* (1967).

Idatzi dituen artikuluekin eta agertarazi dituen liburuekin J.M. Satrustegi-ren fama zabaldu da Nafarroako mugak gaindituz. Alabaina, hainbat eta hainbat hitzaldi eman ditu Deustuko Unibertsitatean, bai eta ere Euskal Herriko Unibertsitatean, halaber Iruñeko Centro Superior de Estudios Teológicos ikastegian. Gomitatua izana da Tokio-ko Waseda Unibertsitatean eta Argenti-

nako Santa Fe Unibertsitate katolikoan antropologia ikastaroen emaiteko. Go-gora ditzadan orain bere artikuluekin mamitu dituen aldizkariak, batzu bederen: *Príncipe de Viana, Egan, Boletín de la Real Sociedad de Amigos del País, Anuario del Seminario de Filología Julio de Urkijo, Euskera*. Baino J.M. Satrustegi-ren «opera magna» *Fontes Linguae Vasconum* aldizkaria da dudarik gabe, sortzailetarik izan baita lehenik eta kudeatzaile 1969tik orain artio, 33 urte segidan. Kontura gaiten zer den holako aldizkari baten kudeatzea, hartu baitu *Fontes*-ek Julio de Urkijo-ren *Revista Internacional de Estudios Vascos* delakoaren tokia. Nor nahik ez zuen idazten *RIEV*-en, nor nahik ez du idazten *Fontes*-en. Adibidez, hona lehenbiziko urteko idazleak: Luis Michelena, Julio Caro Baroja, A. García Bellido lehen alean, Miguel Urmenetak idatzi zuela aitzinsolasoa; Luis Michelena, J.M. Satrustegi, Florencio Idoate, Angel Iriagoray bigarren liburukian; Karl Bouda, Henri Polge, Rudolf de Rijk, J.M. Satrustegi, Diego Pascual de Eraso, José María Jimeno Jurío, Pierre Lafitte, Luis Michelena, hirugarrenean. Ederki hasia, segitzen du *Fontes*-ek bere bidea euskal istudioen onerako. Zorionak zuri, J.M. Satrustegi.

Euskaldun, euskaltzale, euskaltzain: euskalduna sortzez, hala baitzen eta hala baita egun ere J.M. Satrustegi-ren sort-herria; euskaltzale, hala nahi ukana baitu, hala erabaki baitu. Lehenik landu du aitamenganik ukana duen altxorra, bertze euskalkiak ikasiz, euskaldun guziekin harremanetan sartuz. Idatzi dituen artikuluak eta liburuak dira lekuko, baina, denbora berean, Nafarroan, euskararen aldeko ekintza guzietan parte hartu du, bai frankismo garaian, bai gero ere, herriz herri ibiliz, haurrak bultzatuz, haurrak baitira euskararen geroa. Ez da ezer egiten Nafarroan euskararen alde J.M. Satrustegi gabe. Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku batzordekide izendatu zuten 1988an eta Nafarroako Kultura Aholku batzordekide izana da ere bere dimisioa eman arte, hola erakusten zuela gobernuarekin zituen ezadostasunak.

Euskaltzain, merezimenduz. Egia erran, laster ohartu ziren Euskaltzain-dian bazela Nafarroan nafar apaiz euskaldun gazte bat osoki euskarari emana. Euskaltzain urgazle izendatu zuten 1957an, 27 urte zituela eta euskaltzain oso 1963ko maiatzaren 18an, duela beraz 39 urte, Orixe olerkariaren alkian jar-tzen zela. Denbora jin, denbora joan, ez da alferrik egon 39 urte horietan J.M. Satrustegi. Etorri da zintzoki gure bilkuretarra, gai guzietan parte hartuz. Bat egin du Arantzazuko kongresuan Euskaltzaindiak erabaki zuelarik euskara batuaren beharra, hori baita euskaldun guziak lotzen dituen hizkuntza beharrezkoa, euskalkiak batere menderatu gabe. Euskaltzaindiak batzordeak sortu zi-tuelarik, sartu zen eta han dago beti, Onomastika batzordean. Toki egokia euskal izenak luzaz aztertu dituenarentzat. *Euskal Izendegia* publikatu zuen 1972an eta geroztik, ukana ditu bi agerraldi gehiago 1977an eta 1983an. Parte handi bat hartu du Onomastika batzordeak berrikitan argitaratu duen *Euskal Izendegia / Ponte Izendegia*ren liburuan.

Karguak ere ukana ditu Euskaltzaindian Nafarroako ordezkaria izanez lutzaz 1997 arte, Andres Iñigo euskaltzainak hartzen zuela haren segida. Eus-

kaltzaindiko zuzendaritzan egona da hamalau urtez 1978tik 1992 arte idazkarri gisa, bere kargua betez zuzenki, Euskaltzaindian diren elkarritzak behar den bezala labur bilduz.

Euskaltzaindiak eman dituen urratsetan parte hartu du J.M. Satrustegi-k berea emanet jardunaldietan hala nola biltzar nagusietan. Adibide xoil baten emaiteko eta nihaur lekuko izanez, azpimarratu nahi dut Hiztegi Batuko gaieitan zein aberatsa den J.M. Satrustegi-ren emaitza.

Denbora jin, denbora joan, etorri zaizu, Jose Mari, omenaldien garaia. Be-rikitan, dakidanez, lortu duzu Larreko saria. Larreko, izen ezaguna edo, hobeki erran, izen-orde ezagutua euskal literaturan.

Egun eskaintzen dizute Manuel de Irujo II. saria. Gizon handi baten oroitzapena dauka sari honek, «Irujo etxea» deitu elkartea eskaintzen duena. Oroit gaiten nor izan den Manuel de Irujo, zer egin duen Nafarroaren alde, nola zaindu dituen euskararen eta euskal kulturaren eskubideak bere bizi guzian.

Halaber gure egungo saridunak bizi izan dituen urteak euskararen eta euskal kulturaren alde eskaini ditu eta segur nago luzaz biziko dituenak eskainiko dituela ere. Ohore zuri, Jose Mari, bihotz bihotzetik.



**A J.M. SATRUSTEGI,**

**Premio *Manuel Irujo***

*Lizarra / Estella, 08-VI-2002*

*Jean Haritschelhar;*  
*Presidente de la R.A.L.V. / Euskaltzaindia*

Señoras y señores,

Para los que no tienen la suerte de conocer nuestra hermosa lengua, esta vieja y siempre joven «*Lingua navarrorum*», voy a resumir en mi tercera lengua lo que acabo de decir en euskara.

Para mí J.M. Satrustegi es euskaldun, navarro y sacerdote.

Sacerdote primero, puesto que fue su vocación primera, contestando positivamente a esta llamada interior de ponerse al servicio de los demás, hermanos y hermanas. Después de los estudios de humanidades y teología en el seminario de Pamplona le nombraron a Valcarlos, zona fronteriza donde además de su trabajo de sacerdote conoció otro dialecto entrando en contacto con colegas de Garazi y de Iparralde, empezando sus investigaciones de etnólogo. Recuerdo su discurso de entrada en Euskaltzaindia en que desarrolló el tema de «Las pequeñas oraciones de Valcarlos» (*Luzaideko otoitz ttipiak*). Seguirá sus varios trabajos de sacerdote y de investigador en Urdiain donde estuvo de párroco durante muchos años.

Navarro de pura cepa desde luego, nacido en Arruazu, viviendo en un ambiente euskaldun y navarro. Cómo, entonces, no darse cuenta que había nacido en una tierra privilegiada, yacimiento de larga historia y de usos y costumbres particulares. Cómo, entonces, no seguir el camino abierto por otros navarros entre ellos el tan brillante Julio Caro Baroja.

Su fama de etnólogo le da la ocasión de ser invitado a dar conferencias en la Universidad de Deusto, la Universidad del País Vasco, a dar cursos en el Centro Superior de Estudios teológicos de Pamplona. Le han invitado también a dar conferencias de antropología en la Universidad Waseda de Tokio y en la Universidad católica de Sante Fe en Argentina.

Además de los 24 libros que ha publicado ha colaborado en muchas revistas de Pamplona, Vitoria, San Sebastián y Bilbao con muchísimos artículos de que dan fe su larga bibliografía. Pero, a mi parecer, la «opera magna» de J.M. Satrustegi es la revista *Fontes Linguae Vasconum* creada en Pamplona en 1969. Fue uno de los fundadores y sigue siendo su director. Hay que darse cuenta del trabajo y de la responsabilidad que representan la dirección de una revista de alto nivel de investigación, verdadera continuación de la *Revista Internacional de Estudios Vascos* de antes de la guerra, más especializada que ella en materia de lingüística como lo reza el propio título, verdadera revista internacional que beneficia de aportaciones de investigadores vascos sin duda, pero también franceses, españoles, holandeses, alemanes, ingleses, americanos, polacos, rusos, universitarios en general que dan gran prestigio a esta revista.

Euskaldun, desde luego, y además euskaltzale y euskaltzain / académico de número. Poseedor del euskara desde niño, emprendió su estudio científico, conociendo sus varios dialectos, deseando firmemente su supervivencia. Por eso se involucró conscientemente en trabajar por el desarrollo del euskara, yendo de pueblo en pueblo, verdadero misionero de la lengua, incitando a los niños a que aprendieran el euskara, consciente que el porvenir de la lengua reside en los jóvenes. Todos aquí saben que no se hace ningún acto a favor del euskara sin la participación de J.M. Satrustegi, ejemplo de euskaltzale de estudio y de acción.

Pronto se dieron cuenta en Euskaltzaindia / R.A.L.V. de que vivía en Navarra un joven sacerdote euskaldun y euskaltzale. Le nombraron académico correspondiente en 1957 cuando tenía apenas 27 años y teniendo en cuenta sus grandes méritos le nombramos –hacía un año que era yo académico– académico de número el 18 de mayo de 1963 en el escaño del poeta Orixé. Durante 39 años ha sido un académico ejemplar, asistiendo a todas las reuniones, ofreciendo su aportación a todas las jornadas y a todos los congresos organizados por Euskaltzaindia, desempeñando cargos como el de delegado de Euskaltzaindia en Navarra hasta 1997 y de secretario general en la Junta directiva durante 14 años desde 1978 hasta 1992.

Consciente de la necesidad de una lengua común a todos los vascos, se ha implicado en su desarrollo desde el congreso de Aránzazu en 1968 sabiendo además que esta lengua que une a todos los vascos se nutre de la savia de todos los dialectos que seguirán viviendo cada uno en su propio territorio.

Los trabajos e investigaciones de la Academia se realizan en distintas comisiones. J.M. Satrustegi pertenece a la comisión de Onomástica que disfruta de su aportación de estudiosos de los nombres de pila vascos, teniendo en cuenta que publicó en 1972 *Euskal Izendegia* con 2<sup>a</sup> y 3<sup>a</sup> edición en 1977 y 1983, tomando gran parte en la publicación oficial de Euskaltzaindia de los nombres de pila vascos. Puedo dar testimonio también de su aportación a las

discusiones académicas relativas al vocabulario estándar que de 23.000 palabras pasará a más de 40.000 dentro de algunos años.

Andando el tiempo llega el de los honores y del reconocimiento. Ayer el premio Larreko, gran figura navarra de la literatura vasca, hoy el II. premio Manuel de Irujo que dedicó su vida a la defensa del euskara y de la cultura vasca. De la misma manera J.M. Satrustegi ha dedicado los años de su vida presente y dedicará los muy largos años venideros que le deseo a la defensa y a la promoción del euskara y de la cultura vasca. Felicito a los que le han otorgado este premio tan merecido. Recibe, Jose Mari, mi cordial aplauso y enhorabuena.